

**ZUZENBIDE FAKULTATEKO BERDINTASUN BATZORDEAK 2015eko
IRAILAREN 29an EGINIKO BILERAREN AKTA**

Bertaratu diren batzordekideak:

- Jokin ALBERDI (II)
- Maggy BARRÈRE (II)
- Maite BENGEOA (ikaslea)
- Arantza CAMPOS (batzordeburua)
- Leire IMAZ (II)
- Goizeder OTAZUA (II)
- Elena Ramos (AZP)

Bertaratu ez diren batzordekideak:

- Sofía ARANA (II) (ezin etorria adierazi du)

Batzordekide ez diren bertaratuak:

- Oscar Arroyuelo (Ikastegiko administratzailea)

Berdintasun Batzordea, batzordeburuak egindako deialdiari jarraikiz, Donostiako Zuzenbide Fakultateko bilera aretoan bildu da, 13:30ean.

Informazioa:

- 1) Ongietorria ematea batzordekide berriei: Maite Bengoa (ikaslea), Goizeder Otazua (II) eta Elena Ramos (II)
- 2) UPV/EHUko Berdintasun Zuzendaritzaren eskaera, **Genero ikuspegia txertatzen duten UPV/EHUko Gradu Amaierako Lanak ikusarazteko I. Jardunaldian** laguntzeari buruzkoa.
 - a. Azken ikasturteetan (2013-2013; 2013-2014; 2014-2015) Zuzenbide Fakultatean defendatu eta onetsi diren genero ikuspegiko GRALei buruzko informazioa.
 - b. Lan horiek Berdintasun Zuzendaritzara bidali behar dira **2015eko urriaren 10a** baino lehen, datu hauekin:
 - i. Lanaren izenburua
 - ii. Egin duen ikaslearen izen-abizenak
 - iii. Zuzendariaren izen-abizenak

- iv. Bien helbide elektronikoa eta/edo telefono zenbakia
- c. Jardunaldia egun eta leku hauetan egingo da:
 - i. 2015eko urriaren 28an, asteazkenean, 16:00etan, Donostiako Carlos Santamaria Zentroko hezkuntza tailerrean.
 - ii. 2015eko urriaren 29an, ostegunean, 16:00etan, Vitoria-Gasteizko Letren Fakultateko gradu aretoan.
 - iii. 2015eko urriaren 30ean, ostiralean, 10:00etan, Bilboko Bizkaia Aretoko Pio Baroja Aretan (ziurrenik atzeratu egingo da egun hau).
- d. Jardunaldiok Emakunderen 2015eko XII. Berdintasun Foroan inskribatu dira.
- e. Leire Imaz irakasleak proposatu du Batzordeak ahalegina egin dezala irakasleek konpromisoa har dezaten lanak genero ikuspegitik zuzentzeko Fakultatean ematen diren gai guztietan.
- f. Jokin Alberdi irakasleak gure dinamizazio proiektuari buruz (**ESKU II D**) hitz egin die batzordekide berriei.

Hartutako erabakiak:

- 1) Aurreko akta onartu da.
- 2) Arantza Campos batzordeburuak mezu bat bidaliko die Zuzenbide Fakultateko (Donostia, Leioa) irakasle guztiei, zuzendu dituzten eta genero ikuspegia duten GRALei buruzko informazioa eman dezatela eskatzeko. **Urriaren 10a baino lehen bidali behar zaio** Arantza Camposi Fakultatean defendatu eta onetsi diren GRALei buruzko informazio guztia, ondoren UPV/EHUko Berdintasun Batzordera bidal dezan.

- 3) **UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko Berdintasun Batzordeko** kideok adierazi nahi dugu kezkatuta gaudela, gure Unibertsitatea osatzen dugun kolektibok izaten ari garen despolitizazio eta doktrinamendu handia dela eta. Murrizketak, laneko ezegonkortasuna eta etorkizunik eza, burokratizazioa, gaizki ulertutako kalitate helburuei ematen zaien gehiegizko arreta, kudeaketa lanen areagotzea... Horren guztiaren eraginez, ikasleek lehenbailehen bukatu nahi dituzte ikasketak, lan handirik hartu gabe, eta irakasleok, berriz, gure curriculum besterik ez dugu buruan, eta eguna noiz amaitu zain egoten gara, etxera joateko. **UPV/EHUK gero eta konpromiso txikiagoa du gure gizartearekin, eta horretan gero eta eragin handiagoa du gure irakaskuntza sistemak: obedientzian oinarrituta dago, eta pentsamendu kritikoa baztertzen du.**

Batzorde honek dei egin nahi die irakasleei, ikasleei eta administrazio eta zerbitzu eta langileei, **abian jar ditzaten gure unibertsitate komunitateak inguruko gizarte eta politika kontuei dagozkien desberdintasun eta diskriminazio arazoetan gehiago parte hartzea helburu duten egitasmo eta jarduerak.** Irakasle, ikasle eta AZPkoak geure artean dugun harreman eskasa aldatzen hasi behar dugu, eta elkarrekin lan egin behar dugu, unibertsitate konprometituago eta hobe bat lortzen lagunduko diguten egitasmo berriak abiatzeko.

Hori dela eta, **erabaki dugu gure fakultateko kide guztiei dei egitea azaroaren 19ko 13:30ean** egingo den **bilera informaleran (taper-potea)**, guztion artean interesgarri izan dakizkigukeen ideiak, egitasmoak eta/edo proiektuak aztertzeko, eta, hala, gaur egungoa baino **Fakultate aktibo eta parte hartzaileago bat eraikitzeko bidea ezartzeko.**

Esku2D batzar eratzailea, UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko Ateneoan.

2015eko azaroaren 19an (osteguna), 13:30ean.

Lekuak: Donostiako Zuzenbide Fakultateko **halla**

Leioako 1. Ikasgelategiko **halla**

4) Egitasmo hauek aurrera eramatea:

a. Jokinek eta Leirek iragarkiak jarriko dituzte Leioako klaseetan.

b. Oscar Arte Ederretako zenbait lankiderekin jarriko da harremanetan, panpinari buruzko ideia bat edo beste alternatiba batzuk proposatzeko.

5) Ekitaldia prestatzeko bilera 2015eko urriaren 27an (asteartea) egingo da, 13:30ean, eta gaur jorratzen hasitako gaiak amaitutzat emango dira (adibidez, deialdia egiteko modua).

Bilera 14:30ean amaitu da.

Donostian, 2015eko irailaren 29an

Sin.: Arantza Campos

(batzordeburua)